

DEKANOA



2 018/2019 ikasturtean berrikuntza aipagarriak gertatu dira irakaskuntzari eta antolakuntzari dagokienez. Hala nola, EAZ Dualaren lehen edizioa abiarazi da. Enpresa, ikasle, tutore eta irakasleak elkarlanean ari dira unibertsitate irakaskuntzan berritzailea den proiektu batean. Nabarmentzekoak dira sailek proiektuarekiko duten konpromisoa eta egiten duten ahalegina. Testuinguru berean, unibertsitateko heziketa dualari buruzko nazioarteko bi jardunalditan parte hartu dugu, eta diseinu eta ezarpenean izan dugun esperientzia txikia erakutsi eta beste errealitate batzuetatik ikasi dugu. UNIBASQUEk ibilbidea akreditatu du.

Azpiraratzekoa da ere fakultateak Docentiaz programan izandako parte hartzearengatik jaso duen aitortpena: irakasleen % 50 baino gehiago ziurtatu ditu. Lehenengo postuan dago fakultatea UPV/EHU alor horretan, baita nazioarteko mugikortasunean ere. Horren harira, datorren urtean 230 ikasle inguru bidaliko ditugu atzerriera eta beste herrialde batzuetako 150 ikasle inguru hartuko ditugu. Auzerriko ikasleen gogoko helmuga da Sarriko. Fakultatearen posizionamendu lehiakorrean sakonago aztertzeko ildo da hori.

Antolakuntzari dagokionez, master ofizialak fakultateak kudeatzen ditu orain. Hala, hamaika graduondoko eskaintzen dira orain, eta horietako hamar Sarrikoan ematen dira. Administrazio babesa transferitzeko eta funtzionamendu operatiboa ikasteko prozesua egiteko daude oraindik, baina denbora behar da emaitza ezin hobek lortzeko.

Sailen behin betiko berrantolaketa ere abian da. Erakundeak sailak «fusionatzeko» erabakia hartu du, eta hamabitik bederatzira saili eragiten die aipatu erabakiak.

Fakultatearen Plan Estrategikoari dagokionez, elkarrikeria eta eztabaida maila bikaineko bilera ugari egin dituzte batzordeek.

Ildo horretatik, ezin dugu ahaztu EAZ Dualaren eta EAZ eta datu tratamenduaren eskaintza berria izango dugula Bilbon datorren ikasturtean, MUK eskainita. Plan Estrategikoak panorama lehiakor berria birkokatzen lagundu behar digu. Sarriko erronkarako prest dago.

Jon Barrutia



Orientazio jardunaldiak

2019ko maiatzaren 6an, 7an, 8an eta 10ean, gure graduatuko ikasleentzako Orientazio Jardunaldiak egin ziren Sarrikoan. Ikasleen harrera ona izan zen orokorrean, bai gerturatu zirenen kopuruarengatik, bai beren

asebetetze mailarengatik; beraz, saioak gure ikasleen interes akademikoetara eta kezketara moldatzen jarraituko dugu.

Ohiko legez, Gradu Amaierako Lanari buruzko informazio jar-

dunaldian jende ugari egon zen. Gainera, bertaratu zirenek asebetetze maila handia adierazi zuten, aurreko saioetakoa baino handiagoa.

Erreleboa dekanotza taldean

Joan den martxoan, Alberto Ansuategi Ekonomia Analisiaren Oinarriak Ieko irakasleak Aitor Ciarreta Ekonomia Analisiaren Oinarriak IIko irakaslea ordeztu zuen nazioarteko harremanetarako dekanorde gisa, legegintzaldi hasieran adostu zen bezala.



Ekintzailetzaren IHES gela



Ekintzailetzaren lehenengo ihes gelan parte hartzeko aukera izan genuen Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko).

Ekintza Zitek Mintegiak bultzatu du, negozio edo enpresa bat sortu nahi duten Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campuseko unibertsitateko kideak laguntzeko programak. Ihes gelak gero eta aisialdi jarduera ohikoagoak dira. Jolas fisiko eta mental horretan, pertsona talde bat gela batera sartuko da. Bertan, taldean lan egin beharko dute enigmak argitzeko, eta horrela, istorioaren amaiera aurkitu eta handik ihes egitea lortu

behar dute emandako denbora amaitu baino lehen. Zitek Escape-ren gai nagusia ekintzailetza da. Horren helburua da ikasleei erronka bat ezartzea, norberaren kontura egindako lanaren gainean nolako ezagutza duten ikusarazteko eta ekintzailetzari buruzko errealitatea ezagutzeko aukera emateko. Horretarako, parte hartzaileak istorio zirraragarri batean murgilduko dira eta erabakiak hartzen hasi beharko dira. Adimena eta talde lana sustatzen dituen jardura da. Sarrikon, 304 pertsonak parte hartu genuen (ikasleak, AZPko langileak eta IRI). Egundoko bizipena!

Irakaskuntza berrikuntzarako esperientziak

2019ko ekainaren 28an, irakaskuntza berrikuntzari buruzko jardunaldi bat egin genuen. Hiru hizlarik parte hartu zuten:

- La integración de Matemática en la docencia de economía. ¿Inversión o dispendio?. Irakaslea: Ikerne del Valle
- Empleo de Twitter en la docencia universitaria: hacia un modelo de aprendizaje basado en la co-creación. Irakaslea: Eva Emmanuel
- Tendencias de Innovación Educativa ¿Cuáles puedo aplicar en mi aula? Irakaslea: Angel Fidalgo. Informa-

zio Teknologien Berrikuntza Laborategiko zuzendaria, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa. Meatze eta Energia Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. CINAICeko Batzorde Antolatzaileko burua.

Hainbat gairi buruz hausnartu zen: Mathematica aplikatiboa lehenengo mailako irakasgaietan erabiltzea, Twitter laugarren mailako nazioarteko marketingo irakasgai batean erabiltzea eta, azkenik, zer diren hezkuntza joerak eta gure irakasgaietan zein gehitzea komeni den. Berri gehiago emango ditugu aurrerago!



Graduazio ekitaldia

Otsailean, gure ikastegiko 58. promozioiko eta graduiko 5. promozioiko ikasleei diplomak banatu zitzaizkien. Federico Payá izan zen ekitaldiko aitabitxia, eta Eusko Jaurlaritzako sailburu Cristina Uriarte eta Nekane Balluerka errektorea bertaratu ziren.



Klima-aldaketaren kontrako eguna unibertsitateetan

Joan den martxoaren 15ean, Sarrikoko fakultateko hiru ikaslek ingurumen kontzientziazioko kanpaina moduko bat abiatu genuen «klima aldaketaren kontrako eguna unibertsitateetan» izeneko ekintzarekin bat egiteko.

Kanpaina horri ekiteko arrazoia ingurumenaren gainbetera izan zen, hainbat faktoreren erruz gertatzen dena, besteak beste, plastiko gehiegi erabiltzea –itsasora iristen denean ura kutsatzeaz gain, itsasoko animaliei ere kalte egiten die–, berotze globala –askotan aipatu duguten fenomeno da eta hasi gara nabaritzen horren ondorioak– eta ondoriozko lehortekak –horien ondorioz ingurumena nahasten da, eta landu daitekeen eta bizitzeko egokia den lurra gero eta urriagoa da–.

NBEren arabera, hamabi urteko epea dugu egoera horri buelta emateko berandu izan baino lehen; hau da, guztiok

batera lan egin behar dugu Go-arazoak okerrera egin ez dezana, hamabi urteren buruan ezingo baitugu atzera egin.

Akats larria da beste alde batera begiratzea, errealitatearen aurrean ezikusia dena egitea. Bestela, faunak eta florak, gu baino askoz lehenago planeta populatzen zutenek, ondorioak pairatuko dituzte eta guztiz desagertuko dira. Guk geuk, gure seme-alabek eta bilobek ez dugu edateko urik izango, ezta arnasteko aire garbirik ere, Herbehereak eta beste herrialde batzuk urpean geratzen direla ikusiko dugu, eta lau urtaroak amai gabeko uda bilakatuko dira. Lurraren birrikak kilometroak eta kilometroak eraikin besterik ez dira izango, eta geurreak karbono dioxidoaren biltegiak baino ez. Errealitateari ezikusia dena egitea ez da horren erraza izango orduan.



g o a n
izan behar
dugu ura baino ez
dugula edaten, airea besterik
ez dugula arnasten, eta Lur
bakarra dagoela guretzat eta
ozta-ozta bizirauten duten
gainerako espezieentzat.

Garaiz gaude, balia dezagun aukera.

Elkarrekin lan egin dezagun.

Eugenia Garay Perea



DÍA CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO EN LAS UNIVERSIDADES UNIBERTSITATEETAKO KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EGUNA DAY AGAINST CLIMATE CHANGE IN UNIVERSITIES

A PESAR DE QUE EXISTAN MUCHOS PROYECTOS EN CONTRA DEL CAMBIO CLIMÁTICO, DADO QUE ÉSTE ES UN PROBLEMA QUE NOS AFECTA A TODOS, SE REQUIERE DE LA COLABORACIÓN DE CADA UNO DE NOSOTROS. POR ELLO LA FACULTAD DE SARRIKO SE SUMA A ESTA INICIATIVA.

¡ÚNETE!

NAHIZ ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO PROIEKTU UGARI EGON, ARAZO HONEN ARAZOAK GUZTIOK PAIRATUKO DITUGUNEZ, GUZTION KOLABORAZIOA BEHARREZKOA DA. HORREGATIK, SARRIKOKO FAKULTATEA EKIMEN HONETAN ERE PARTE HARTU NAHI DU.

ELKAR ZAITEZI!

ALTHOUGH THERE ARE A LOT OF PROJECTS AGAINST CLIMATE CHANGE, AS THIS PROBLEM AFFECTS ALL OF US, THE COLLABORATION OF EVERYBODY IS REQUIRED. THAT IS WHY THE FACULTY OF SARRIKO IS TAKING PART IN THIS INITIATIVE TOO.

JOIN US!





GJH-etara bideratutako ekintzailetzaren proiektua

Gure fakultateko ikasle Paul Sánchez Jáuregui GOOGAZ proiektuaren finalistetako bat da.

Aurtengoa GOOGAZ proiektuaren bigarren edizioa

izango da. Bizkaiko gazteak Garapen Jasangarriaren Helburuak landuko dituzte.

Lehenengo fasea Sopelan egin zen. Hiruzpalau pertsonako taldeek GJHetan

oinarritutako ihes jolas batean parte hartu zuten. Lehenengo hiru talde onenak Bizkaia Kopara igaro ziren. Bigarren fasearen helburua GJHetan planteatzen diren

erronkei irtenbidea emateko proiektu berritzaileak garatzea izan da. Talde irabazlea, gure kide Paul barne, Mexikon egon da bi astez Pueblako Unibertsitate Iberoamerikarrak antolatutako Bootcamp IATAn (Innovation Across the Americas) parte hartzeko. Talde europar batek lehen aldiz izan du parte hartzeko aukera.

Bootcamp IATAn, Espainiako, Kolonbiako eta Mexikoko unibertsitate ikasleek El Alto auzoa komunitate iraunkor eta diru sarrereren sortzaile bihurtuko dute, birziklatutako materialak, lanbideen suspertzeak eta sare komunitarioak baliatuz.

Euskal Herriko XI. ekonomiako olinpiada

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Sarriko) beste Ekonomiako Olinpiaden beste deialdi bat egin zuen. Hamaikagarrena, hain zuzen ere, eta ekonomian eta enpresan interesa duten baxilergoko bigarren mailako ikasleei zuzenduta zegoen. Helburu hauek planteatzen ditu Olinpiadak: ekonomiaren ikasketa bultzatzea, ahalegina eta bikaintasun akademiko saritzea, eta Ekonomia eta Enpresen Antolakuntza irakasten duten Bigarren Hezkuntzako irakasleekin eta gaien interesa duten ikasleekin harreman egonkorra sortzea, etorkizunean gure fakultateko ikasle izango baitira.

Joan den apirilean izan zen azterketa. Zazpi galderaz osatuta zegoen froga (ekonomia alorreko bi eta enpresa alorre-



ko bost). Ehun ikasle inguru agertu ziren, hogeitabat ikastetxetakoak.

Ekainaren 20an aditzera eman ziren irabazleak: Victor Martinez Bravo, Padre Andrés de Urdaneta ikastetxekoa, izan zen lehen sariaren irabazlea; ikastetxe bereko Juan

Olalla Pombok eraman zuen bigarrena; eta Osane Zugazaga Menika, Begoñazpi ikastetxekoa, hirugarren izan zen.

Ikastetxeek ere jasotzen dute saria, baldin eta gutxienez hiru ikasle aurkezten dituzten Olinpiadan. Aurtengoan, ikastetxe bakoitzeko hiru ikasle

onenen batezbesteko emaitzak atera ondoren, Padre Andrés de Urdaneta ikastetxea, Lauaxeta ikastola eta Gasteizko Marianistas ikastetxea izan ziren irabazleak, hurrenez hurren.

Zorionak ikasle guztiei; zain gauzkazue UPV/EHU.



Sarriko-ko atezaindegiak ate asko zabaldu eta gol asko gelditzen ditu

Conchi Santiesteban (goizez) eta Iñigo Arriola (arratsaldez) atezain nagusiek koordinatzen eta ordezkatzen dituzte Sarriko atezaindegian –hiru harrera lekutan: eraikin nagusia, bulegoak eta Miguel Angel Blanco) lan egiten duten hamaika pertsonak.

Beren zeregin nagusiez galdetuta, «kanpotik datozen pertsonak nahiz irakasle eta ikasleak artatzea eta

bideratzea» direla erantzun dute biek. «Ikastegiaren lehen irudia gara».

Nabarmendu dutenez, zeregin nagusietako beste bat «instalazioen mantentze lan ez arduratzea» da.

Haien arteko lan giro ona nabarmendu dute: «talde bat gara», Iñigok azpimarratzen duenez.

Zehazki ikasleez galdetuta, «atseginak eta edukazio

onekoak» direla eta «gero eta gutxiago» direla esan dute.

Bitxikeria gisa, Conchik azaldu du jendea musika ekitaldiez eta emanaldiez galdezka etortzen dela, fakultatea kontserbatorioa delakoan. Iñigori orain dela gutxi gizon bat etorri zitzaion Unamunok fakultatean utzitako arrastoaz galdezka. «Gu baino gehiago zekien egile bilbotarraren

Sarrikoko seinaleez, bai eta Leioakoez ere.»

Haiekin eta une horretan atezaindegian zauden ki-deekin hitz eginda –telefonoa jo eta jo dago eta jendea galderak egitera dator–, argi baino argiago dago profesional peto horiek ate asko irekitzen eta gol asko gelditzen dituztela.



Albiste laburrak

Gure GRALek mundua aldatzeko balio dute

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak antolatuta, «Mundua eraldatzeko GRAL onenak» izeneko UPV/EHUko ikasleen II. Biltzarra egingo da 2019ko urriaren 17an. Bizkaiko Campusean (Leioa) egingo da, aurreikusten denez.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Graduak azken ikasturtean ari diren ikasle guztiek zein unibertsitateko beste fakultateetakoek parte har dezakete. Antolaketa arrazoiengatik, ekarpenak irailaren 18a baino lehen (asteazkena) bidali beharko dituzte.

Zuzendaritzak kongresurako prestatu duen iragarkia esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=Oadjb3mCcvE>

Hautazkoen eskaintzari buruzko jardunaldiak

Gure ikastegian ematen diren graduetako hautazko ikasgai buruzko jardunaldiek harrera handia izan zuten Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduari eta Ekonomiako Graduari dagokienez. Logikoa denez, Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua eta Marketineko Gradua

ikasten ari diren ikasleen partaidetza baxua izan zen, gradu horiek hautazko ikasgai gutxi eskaintzen baitituzte. Asebetetze inkestak hobetu dira 2017/2018 ikasturteko datuekin alderatuta, eta urtez urte orientazio jarduera horien diseinua hobetzera bultzatu gaitu horrek.

GRAL onenaren saria ekonomista kontularien i. Nazioarteko topaketan

Ekonomista Kontularien I. Nazioarteko Topaketa joan den maiatzean egin zen Zaragozan, Ekonomista Kontulariek eta Aragoiko Ekonomisten Elkargoak antolatuta, eta Argitalpen Zientifiko edota Teknikoko Katedrak koordinatuta. Topaketa amaitzeko, komunikazio, GRAL eta MAL onenentzako sarien banaketa egin da. Master Amaierako Lanen kategorian, Amaia Santa Cruz Urgoiti ikasleak aurkeztutakoa dago, Javier Corral-Lageren zuzendaritzapean egindakoa. Lan hori gure fakultatean ematen den Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea Masterraren barruan egin da.

